

Ikasturte hasiera: bigarren txanda

Aste honetan hasi dituzte eskolak DBH 3-4 eta Batxilergo 1-2ko ikasleek. Aurkezpen-saioretan jaso zituzten ikasturte berezi honi buruzko argibideak, eta egoera berrira egokitzen ari dira.



GKAI-koak martxan

Oporraldia amaituta, GKAI-ko ikasleak martxan jarri dira berriro ere. Urte berezia izanik, segurtasun neurri guztiak hartuta, saio praktikoa zein teorikoak izango dituzte Gizarte eta Kirol Animazioko eta Irakaskuntzako goi mailako heziketa zikloko ikasleek.



Goiz eta arratsaldeko jarduna HH eta LHn

Astelehenetik aurrera (irailak 21), HH eta LH-ko ikasleek goiz eta arratsaldeko jarduna hasiko dute. Horrek guztiak aldatetako ekarriko ditu ikasleek sarrera-irteeretan. Atxikian duzue [Haur Hezkuntzaren antolaketa](#)ri buruzko informazioa, baita [Lehen Hezkuntzari](#) dagokiona ere.



Segurtasun neurrietan egokitzapenak

Eusko Jaurlaritzak abuztu bukaeran argitaratutako Protokolo Osagarriarekiko egokitzapenak egin ditu jada. Ikasleekin jarraitu beharreko segurtasun-neurriak dagokienez, "Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ezarritako bizikidetzatalde egonkorretan, maskara kendu ahal izango da aire zabaleko jardueretan, hauek ikasleek arteko kontakturik gabe egiten badira". Neurri honek Gorputz Hezkuntzako saioen antolaketa birplanteatzera garamatza, eta beste arloei ere eragingo die taldeka atarian egin daitezkeen jardueretan eta mendi aldera bideratzen ditugun irteeretan, ikasleek musukoa jarrita edukitzea beharrezkotzat jotzen ez delako.



Eskolaz kanpoko jarduerak

Dorren astean abiatuko dira eskolaz kanpoko hainbat jardura (Musika Eskola, Antzerki Eskola, Gimnasia erritmikoa, Hip-hop, Arte Eskola), eta beste batzuek urrian emango diote hasiera ikasturteari (Xakea, Eskola Kirola). Oraindik ere jardura horietan izena emateko aukera duzue, eta jakin segurtasun- eta higie-ne-protokoloak finkatu direla guztietan. Dagoeneko izena eman baduzue, jardueretako arduradunak jarriko dira zuekin harremanetan. Izena eman ez baduzue eta zalantza bat argitu nahi baduzue, aldiz, [arduradunekin harremanetan](#) jar zaitezke.



Alexia eta familiak, LH3tik BATX2ra

Aurreko ikasturtean bezalaxe, aurreko ere, ikasleek datuen kudeaketarako aplikazioa ireki berri zaie familiei: Alexia. Horretarako, erabiltzaile berri guztiei mezu bat bidaliko zaie erabiltzaile eta pasahitza eskuratzeko estekarekin ([Info+](#)).



Zerbitzuak

Aurtengo egoera bereziari erantzun nahian, aldatetako egiteko epea orain arte luzatu dugu, baina ohar honen bitartez jakinarazten dizuegu gaurtik aurrera ezingo dela aldatetarik egin. Izan ere, zerbitzu bakoitzeko datu finakoak zein diren jakin behar dugu, antolaketa txukun eta egonkor bat garatu ahal izateko. Horren ondorioz, urria bitartean ez da jangela, garraio eta zaintzako txartelik salduko. Izen-emate datu finakoak ditugunean, berriro helduko diogu txartelak saltzeko aukera aztertzeari.



Kalera atera gara

Aste honetako eguraldi ederra aprobetxatuz, ikastola-inguruak baliatu ditugu berriro ere elkarrekin egon eta elkarrekin gozatzeko! Talde egonkorrek errespetatuz egin ditugu irteeratxo hauek, eta energia positiboz kargatu ditugu gorputz eta buru, ikasturteari indartxu ekiteko! HH-ko hainbat ikasleek parkeetara eta Lore Barzetetara egin dituzte bixitatxoak, LH 3-koak Manteon ibili ziren atzo, eta LH 6-ko ikasleak Uliar aritu dira jolasean.



Zurriola ikastola
ANTZERKI ESKOLA

Zurriola ikastola
MUSIKA ETA DANITZA ESKOLA

IRAILAREN 21EKO ASTEAN HASTEKO IRRIKITAN GAUDE!

Arduradunen berrin jaso ez dituzuenak, jar zaitezte gurekin harremanetan eta goopratu oraindik zuen seme-alabek izena emateko aukera dute!

<p>Antzerki Musika eta dantza</p>	<p>Oihana Maritorea Oihana Etxebeste</p>	<p>zurriantzerki@zurriolaikastola.eus zurriolame@zurriolaikastola.eus</p>
---------------------------------------	--	---

OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilera orokorrak:** Informazio berritua. [Txosten berriak](#) eskuragai.
- **Baimenak: Orokorrak.** Ikastolatik bakarrik irteko [baimena](#) (LH3-4). Bigarren jolas-orduan ateratzeko [baimena](#) (DBH3-4, BATX1-2).
- **BATX1 (Arteko ikasleak):** Goenagaren erakusketa Kurtsaalen. Otsailak 22.
- **HABE C1:** Diru-laguntza eskatzeko deialdia, gainditu zutenentzat. [Zirkularra](#).
- **Euskara klaseak gurasoentzat:** [Informazioa eta izen-ematea](#).
- **Parketarrak:** [Zirkularra](#), [Kartela](#).

Korri, mumpa, tak.

KILOMETROAK 2020
AMASA | VILLABONIA | ZUZURKIL

Aurtengoa ere urte berezia izango da kilometroak jaiarentzat. Baina abesteko ez da aitzakia handirik behar!

